

Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com

*Arte*



Aurkibidea

# Udalerria: Artea

## Sarrera



Arratia eskualdeko udalerria. Herri hauek ditu mugakide: ekialdean, Dima; mendebaldean, Zeberio; hego-mendebaldean, Orozko; iparraldean, Arantzazu; eta, hegoaldean, Areatza. Auzo hauek osatzen dute herria: Astui, Bildosola, Elexabeitia, Errotabarri, Ezparta, Garai, Gaztelu, Larrazabal eta Ugarte. Bertoko herritarrek Igorrerako joera dute. Oso oparoa da basogintzako eta okelatarako abeltzaintza ustiapena, ardi-aziendak zein behi-aziendak lantzen dira. Hautespene-gradu oso altuarekin lan egiten duten abeltzaintzako ustiategiak daude. Mendebaldeko euskararen barruan Arratiako euskararen barruan kokatzen da bertoko hizkera. Euskal hiztunen portzentaje esanguratsua dela-eta UEMAko (Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea) kidea da.

*Argazkia: AHerrero*

- **Biztanleak:** 728
- **Euskaldunak:** %84,84

## Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **10**
- Zintak: **14**
- Pasarteak: **39**
- Transkribatutakoak: **2**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **39**

## Proiektuak

- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- IRALERen Bizkaiera Bilduma
- Muxikako ahotsak

## Hizlariak

### **Imanol Agirre Gartzia (1974)**



Imanol Agirre Gartzia, pilota arloan Agirre deituraz ezaguna pilotari profesional ohia da. Aitarekin eta osabarekin asko jolasten zuen pilotan umetan, eta Zeanuriko pilota-eskolan hasi zen entrenatzen. 1994. urtean, Asegarcerekin profesional bezala jolasten hasi zen eta bere lehen profesionaleko partida 1995ean jokatu zuen, Lemoan. Azkena, berriz, 2009ko baneudaren 31an, Zeanurin izan zen.

### **Juanita Amondarain Olabarri (1924)**



Larragoiti auzoko Etxetxikerran jaio zen. Ama Zeberiokoa zuen eta aita Zeanurikoa. Lau neba-arrebatan gazteena eta alaba bakarra izan zen. Nebek eta aitak etxetik kanpo egiten zutenez behar, umetatik hasi behar izan zen etxeko lanetan zein ardizain. Elexabeiti auzora ezkondu eta bertan osatu zuen familia. Lehengo bizimodu horren berri eman zigun [Teodora Etxebarria](#)gaz batera.

### **Luziano Artetxe Amuriza (1923-2022)**



Arteako Iturria baserrian sortu zen bost neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Igorreko Iturtzakoa. Neba-arrebatan zaharrena zenez eta ama umetan hil zitzaenez, gerrara arte Igorreko eskolara joan zen bertan bizi izan baitzen izeko batenean. Etxera bueltatu eta Zeberiora joan ziren ebakutatuta. Baserriko beharrak (gari lanak, ilargiaren eragina...), herriko semimario eta bainuetxeko kontuak, Franco garaiko errepresioa, abestiak... izan zituen berbaigai Firestoneneko behargin ohi honek 90 urte bete berri zituela.

### **Txomin Artetxe Amuriza (1925-2018)**

Arteako Iturria baserrian sortu zen bost neba-arrebako familia batean. Aita bertakoa zuen eta ama Igorreko Iturtzakoa. Sei urterekin hasi zen herriko eskolan eta dotrina euskaraz jaso zuen. Gerra garaian, frontea heltzerakoan, Zeberiora alde egin zuten etxeok. Hamahiru urterekin, gerra amaitu aurretik, abadetzako bidea hartu zuen: Guardiako (Arabar Errioxa) seminarioan urte bat igaro zuen, beste bat Bergarakoan eta azken 10ak Gasteizkoan. Zeberioako eta Apatamonasterioko parrokoa izan ostean, 1960. urtean, Ibarruriko (gaur egun Muxika) elizaren ardura hartu zuen eta bertan bizi izan da geroztik. Urte horietan guztietan, Frankismo garaian, bi aldiz egon zen preso: 1966. urtean, gobernadoreak sermoi bat dela-eta jarritako isuna ez ordaintzearen Zamorako kartzelan egon zen beste 11 abade eta fraiderekin batera; eta, 1975. urtean, 15 egun Gernika-Lumoko Guardia Zibilen kuartelean pasatu ostean, 15 hilabete pasatu zituen Basauriko espetxean erakunde armatuari lagundu ziolakoan. Ibarrurin igarotako urteetan ekarpen handia egin du herrian, jendearen euskalduntze-alfabetatze prozesuan zein kultur transmisioan: urte batez bertako umeen eskolako maisu izan zen, andrazkoentzako aditza lantzeko eskolak eman zituen, abesbatza sortu eta indartu, umeekin euskal kantak landu...



### **Leon Bilbao Ibarretxe (1916-1990)**

Arteako Presalde baserrian jaio zen. 13 urterekin hasi zen alboka jotzen, aitak irakatsita. 1964an Maurizia Aldeiturriaga pandero-jotzailearekin bikotea osatu zuen eta handik aurrera batera ibili ziren biak Bizkaiko herrietako erromeriak alaitzen. Aurrerago, [Bonifazio Arandia `Fasio´](#) soinu-jotzailea batu zitzaien. Hainbat disko grabatu zituen eta albokari gazteen maisu ere izan zen; Ibon Koteron da haren ikasle entzutetsuena. Alboka egilea ere bazen. 1990eko abenduaren 18an hil zen, 74 urte betetzeko egun bat falta zuela.



### **Asensio Bilbao Ingunza (1923-2017)**



Arteako plazan jaio, hazi eta bizi izan da. Aita bertakoa zuen eta ama Dimakoa. Plazan dauden hiru etxetan bizi izan da. Izan ere, gerra aurretik gurasoek herriko taberna hartu zuten enkantean, gerora biziko ziren etxea hartu aurretik. Azken horretan ostatua izan zuten, batez ere udatiarrentzat. Errazionamendu garaian ere banaketaz arduratzen ziren. Gerran, eskolak bukatu eta hilabetez Boluetan (Bilbo) errefuxiatuta egon ostean, Igorreko marianisten eskolara joan zen. 26 urte gaz Bilboko "Bando español de crédito"n (gerora Banesto) hasi zen beharrean eta han aritu zen erretiratu artean.

### **Jesus Etxebarria Aldeiturriaga (1930)**



Arratiako Artea herrian jaio zen. Aita Arratiako Areatza herrikoa zen, ama berriz Arteakoa. Jesusek bost urte zituela, familia artaldearekin Zaratamora joan zen bizitzera, Makatza baserrira. Zaratamon eskolatu zen, zazpi urtetik hamahiru urtera arte; hasieran elebitan, baina gerraostean erdara hutsean. Basolanetan jardun zuen gaztetan. Aita idiekin garraioan ibiltzen zen, eta Jesusek kamioiarekin jardun zuen urte batzuetan. Zaratamon larrea bukatu zenean, gurasoak seme batekin Urkabustaizko Untzaga-Apregindana kontzejura joan ziren ardiekin; geroago, Jesus ere bertara joan zen. Harrezkero, Untzagan eman du bere bizitza, [anaia](#)rekin batera 1200 ardira arteko artaldea zaintzen. Inguruko 16 artzainek elkartuta Izarran eratu zuten gaztandegiaren lehendakari izan zen 22 urtez. Zaratamoko Maria Begoña Etxebarria Sagarduirekin ezkondu zen. Seme-alaba bi dituzte.

### **Jose Antonio Etxebarria Aldeiturriaga (1939)**



Zaratamoko Makatza baserrian jaio zen, bost anai-arrebatatik gazteena. Aita Arratiako Areatza herrikoa zen, ama berriz Arteakoa. Ezkondu eta laster, familia artaldearekin Arteatik Zaratamora joan zen bizitzera, Makatza baserrira. Zaratamon eskolatu zen, zazpi urtetik hamahiru urtera arte. Basolanetan jardun zuen gaztetan. Zaratamon larrea bukatu zenean, gurasoekin batera Urkabustaizko Untzaga-Apregindana kontzejura joan ziren ardiekin, berak 14 urte zituela. Geroago [Jesus](#) bere anaia ere Untzagara etorri zen, eta elkarrekin artzaintzan jardun dute bizi guztian, 1200 ardi arteko artaldea zainduz. Txerriak ere hazten zituzten, basoan ezkurretan larreratuta. Estatu Batuetako Idahon 4000 ardiko artaldea zaindu zuen hiru urtez.

### **Teodora Etxebarria Etxebarria (1933)**



Orozkoko Igoarritzan ("Iguartze") jaio zen 1933. urtean. Gurasoak ere Orozkokoak zituen. Zortzi neba-arreba, gurasoak eta aitona-amonak bizi ziren etxean. 14 urtera arte eskolara joan arren, beti aritu zen baserriko eta artzain beharretan. Arteako Elexabeiti auzora ezkondu eta bertan bizi zen gerostik. Orozkoarra izan arren, Arteako herrian kokatu dugu elkarrizketa garaian auzoa zuen [Juanita Amondarain](#) egaz batera egin geniolako elkarrizketa,.

### **Margari Uriarte Uriarte (1923)**

## **Pasarteak gaika**

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

### **1. Familia eta harremanak**

#### **1.1. Jaioberriei izena zelan ipintzen zitzaien**

- **Hizlaria(k)**: Artetxe Amuriza, Luziano
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Bilbao Ortuondo, Johana - Goiria Mendiola, Nerea
- **Erref**: ATE-008/002
- **Iraupena**: 0:00:53. **Hasi**: 00:01:45. **Bukatu**: 00:02:38
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena**: Garai hartan aitita-amamen izena edo eguneko santuarena jartzen zen.

#### **Transkripzioa**

- Orduko denboratan, nik pentsetan dot ba ze edo aititen edo amaman ixena edo egunena, apur bet hori eroaten zan, e? Ta nik be, ba, aitebitxin ixena. Nire aitite be Luziano ixen zan. Igorren bizi zan.  
- Ta harena. Orduan, amak eta aitek ez eben elejiduten umean izena?  
- Bueno, amak eta aitak be igual batzuk eukiko eben... ez? Baia normalean egunena edo aitebitxi edo amabitxirena. Hori [zen]... gehienbaten holan izeten zan.

## **2. Lanbideak**

### **2.1. Maurizia, emakume ausarta**

- **Hizlaria(k)**: Bilbao Ibarretxe, Leon
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Agirresarobe, Kolesti - Arregi, Iñake - Garcia del Castillo, Maite - Velasco, Iñaki
- **Erref**: ATE-012/037
- **Iraupena**: 0:01:06. **Hasi**: 00:42:59. **Bukatu**: 00:44:05

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**  
Lanbideak » Antzinako lanbideak » Ikazkinak eta txondorrek  
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak  
Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- **Laburpena:** Mauriziak aita omen zeukan panderojolea. Emakume ausarta zen. Aitarekin ikazkintzan ibilia zen, baita trontzarekin zuhaitzak botatzen ere.

### Transkripzioa

- Mauriziak eitten zittuezan koplak edo?
- Honek? Kanteu? Bai.
- Baiña berak asmatu.
- A! Asmau?
- Berak in o beste bati entzun?
- Ba beste batena entzunde hak be. Aite esaten eban hak eukiten ebalan panderistea. Ez dakit ba.
- Haren aitte?
- Haren aitte. Ez neben ezautu nik.
- Andra garbosa izengo zan.
- A? Buf... Baten esan eusten: "Ni gixon batek ez nau bildurtu gero!" diñosta. "Ez eutsun ingo". Ta "Botako jok ointxe zeoze, ba" ta "Zuk be ez, e!". "Ez, ez, ni formala naz ta nik... nik ez dot balio". [...] "Ni ez nau bildurtuko gixon batek gero" esan eben. Ta aitegaz ikezgiñan-ta ibiltzen zan ha basoan, arbola botaten ta, trontzeagaz.
- A bai? Bera?
- Bai.
- Trontzatzen bera?
- Bai.

## Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

### 1. Gari-jotea zela egiten zen (ATE-008/004)

Iturrian aitari laguntzen ibiltzen zen; artoa jorratzen, gari-ebaten... Garia zela jotzen zuten kontatzen du. Lan gogorak izaten ziren baina jatekoa ere bereziagoa. Garia bero handiarekin hobeto garantzen dela dio. Azalpena ematen du. Andrazkoak gehienetan sorotik garia ekartzen ibiltzen ziren. Uztailaren bukaerarako garia jota egoten zen. Erein azaroan egiten zuten.

### 2. Hilabeteen izenak euskalkian (ATE-008/005)

Hilabeteak izendatzen ditu bere euskalkian.

### 3. Garia ereitetik ehotzeraino (ATE-008/006)

Garia ereiteko, laiarekin lantzen zen lurra. Azaroan ereiten zen eta uztailaren bukaeran jo. Igitaiarekin mozten zen. Geroago makina ekarri zuten eta urte batzuez erabili zuten. Garia errotan eho eta zahia kendu egiten zitzaion. Zahia, tremesa eta irina bereizten ziren.

#### **4. Ogia egiteko prozesua (ATE-008/007)**

Irinarekin labeko sua egiten zen, gehienetan larunbatetan. Ogiaren oreka nola egiten zen kontatzen du.

#### **5. Ogia eta taloa txandaka (ATE-008/008)**

Ogi nahikorik ez eta artoarekin lapikokoa jaten zuten. Ogi urdaiarekin jaten zuten. Orduan ez zen jatekorik geratzen. Etxejabe handiek baino biharginek diru gehiago izaten zuten eta hobeto bizi ziren.

#### **6. Soroan belarra galtzeko modua (ATE-008/009)**

Martxoaren bukaeran behiekin area pasatzen zuten, belarra kentzeko. Pare bat egunera berriz pasatzen zen eta berriz ere bai, belarra galtzeko. Artorik ereiten ez delako, ez dauka penarik. Berakatz-zopak zela prestatzen zituzten kontatzen du.

#### **7. Artoa errotara eta zurikina behiei (ATE-008/010)**

Ganbaran artoa gordetzen zen. Artoaren zurikina behiei ematen zioten. Artoa garandu eta bizkarrean eramaten zuten errotara. Etzanda egoteko lekuak izaten zituzten.

#### **8. Zurikinekin lastamarrak egiten ziren (ATE-008/012)**

Zurikinei kirtena kentzen zitzairen eta lastamarrak egiteko erabiltzen ziren. Lastamarrak zela txukuntzen ziren kontatzen du.

#### **9. Guardia Zibilengana salatu zutenekoa (ATE-008/013)**

Artobizarrak erretzen zituzten. Behin kartzelara sartu zuten eta tabakoa eman zioten, eta hantxe erre zuen lehenengoz. 1971ko irailaren 11an Arteagako jaiak ziren eta bere semeari eta beste bati txistua bota zien zinegotzi batek sorora. Hari kontuak eskatzearen kartzelaratu zuten bi-hiru egunez Guardia Zibilek.

#### **10. Abertzaleen eta karlisten egoitzak (ATE-008/016)**

Abertzaleek batzokia zuten moduan, karlistek bazuten beraien egoitza. Pelaiok ilaran jarrita zela irtetzen ziren gogoan dauka. Errepublikarrak hiru-lau lagun izaten ziren herrian. Batzokia non egon zen kontatzen du.

#### **11. Igorreko Emakumeen Batza (ATE-008/018)**

Igorreko Batzokiko Emakumeen Batza. Maria izeneko bat errespetu handikoa zen herritarren artean. Gerra aurretik mitin bat non egin zen kontatzen du.

#### **12. Arteako seminarioa (ATE-008/019)**

Pelaiok ilaran irtetzen ziren eta instrukzioa ematen zieten seminarioan. Seminarioa non zegoen kontatzen du.

#### **13. Artea edo Gaztelu-Elizabeiti (ATE-008/020)**

Arteagako herria bi auzok sortu zuten: Gaztelu eta Elizabeitik. Dorretxeak zeuden. Artea izena erabili izan da herria izendatzeko.

#### **14. Zeanuriko seminaristak (ATE-008/021)**

Zeanurin buru oneko jendea egon izan dela dio. Familia handikoei semeak fraile izateko eramateko eskaintza egiten zieten fraileek. Zeanuritik asko joan omen ziren baina ikasketak egin ostean, fraile ez izatea erabakitzen zuten gehienek.

#### **15. Seminarioan jende asko (ATE-008/022)**

Seminarioa gerra aurretik zegoen; berak beti ezagutu izan du. Kanpotik etortzen zen jendea eta asko izaten ziren denera.

#### **16. Bainu-etxeari buruzkoak (ATE-008/023)**

Bainu-etxea orain dagoen bera da eta beti ezagutu izan du. Hotela zein zen kontatzen du. Hezurretako mina zutenak Errioxara joaten ziren. Ura iturburu batetik irtetzen zen. Leku askotan irtetzen dela dio eta usainean nabaritzen dela.

#### **17. Ilbeherako lanak (ATE-008/025)**

Txerria ilbeheran hiltzen zen. Erein ere ilbeheran egiten zuten; porrua eta tipula, esaterako, zildu egiten dira bestela.

#### **18. Txahala hil eta kontserbatzea (ATE-008/026)**

Txahala hiltzerakoan ez zitzaion hainbeste begiratzeko ilargiari. "Zebendikarie" izaten zen behia bi-hiru laguneren artean hil eta zatiak gatzetan gordetzea. Handik zezina ateratzen zen.

#### **19. "Jotea", Leon Bilbaok albokarekin jota (ATE-012/004)**

Leonek "jotea" jotzen du albokarekin.

#### **20. "Porrue" Leon Bilbaok albokarekin jota (ATE-012/008)**

Leonek "porrue" edo porrusalda jotzen du albokarekin.

#### **21. Gerra aurretik herriko gazteekin; gerraostean Mauriziarekin (ATE-012/010)**

Aita ere albokaria zen, baina gutxi jotzen zuen erromerietan. Garai batean ohitura zen albokarekin erromeria sortzea. Gerra aurrean herriko talde batekin, bere antzeko gazte batzuekin, ibiltzen zen hara eta hona: Urkiolara, Orozkora, Durangora... Gerraostean hasi zen Mauriziarekin.

#### **22. Alboka oso antzinakoa; sei nota besterik ez (ATE-012/012)**

Albokarekin "jotak" edo biribilletak jo daitezke, baina tangoak edo halakoak ez, notarik ez duelako. Sei nota besterik ez ditu (jo egiten ditu). Solfeorik ez dakiela eta alboka jotzeko ez dela behar dio. Albokari nola putz egin behar zaion. Alboka oso-oso zaharra da; soinu txikia berriagoa.

#### **23. Aitonarentzat denbora-galtzea zen alboka (ATE-012/013)**

Aitonari ez zitzaion gustatzen alboka, baserrian beharrak egoten zirelako eta harentzat musika denbora galtzea zelako. Ez daki aitak norekin ikasi zuen alboka jotzen, baina haren gazte-denboran albokari asko zeuden. Bizkaia

osoan jotzen zen. Sasoi baten alboka galduko ote zen pentsatzen zuen, baina gazteak badatozela atzetik dio.

#### **24. Alboka jotzeko arnasketa (ATE-012/014)**

Alboka jotzeko arnasketa. Bi aldiz jotzen du azalpenak emateko. Putz egiten den bitartean sudurretik arnasa hartu behar da. Berak erraz ikasi zuen teknika. Semeak, adibidez, ondo jotzen omen du, baina arnasa hartzeko gelditu egin behar. Ez du erre izan, tarteka bakarrik. Medikuen esana.

#### **25. Alboka nola egiten den; pago-egurra (ATE-012/017)**

Albokak nola egiten diren. Normalean pago-egurra erabiltzen da. Pagoa ez bada neguan botatzen, sitsak jaten du. Ilbeheran bota behar izaten da. Adarrak. Beharleku txarrena pitak egiten. Kanaberarekin egin izan ditu.

#### **26. Albokak egiteko, argizaria (ATE-012/018)**

Argizaria Arabatik ekartzen du. Inguruetan patatari botatzen zaion botikak erleengan eta ez-tian eragina duela eta kontuz ibili behar dela dio. Alboka itsasteko erabiltzen da argizaria; kolak arazoak sortzen ditu. Behin Kanarietara bi alboka bidali zituen eta argizari gabe iritsi ziren beroagatik. Albokaren zatiak. Zenbat denbora behar duen alboka egiten.

#### **27. Erromeriak arrastietan; "aimaritarako" etxera (ATE-012/021)**

Gerra aurreko erromeriak. Alboka arrastian izaten zen eta "aimaritarako" (abe marietarako) etxera. Neska-laguntzeak; orduan be muxuak eta halakoak izango ziren, baina ezkutuan. Abadeek soinu txikiari infernuko hauspoa esaten zioten. "Baltseoa" herri batzuetan debekatuta.

#### **28. Erromerietan txakur txikia dantzako (ATE-012/023)**

Albokariak diru gutxi jasotzen zuten erromerietan. Dantza egiteagatik txakur txikia kobratzen zen piezako eta pieza luzeak jotzeko eskatzen zuten. Gaur egun diru gehiegi erabiltzen dela dio.

#### **29. Garai batean "tertulia" luzeak auzolanaren ostean (ATE-012/027)**

Negu partean baserriko hainbat lan auzolanean egiten ziren; gero jendea etxeetan batzen zen eta goizaldera arteko "tertuliak" egiten zituzten. Lihoaren lanak egiterakoan, adibidez. Bere sasoiak jada ez zela halako tertuliarik egiten dio.

#### **30. Hamazazpi urterekin neska-lagunarekin hasi (ATE-012/028)**

Plazetan ibiltzen zen alboka jotzen. Neska asko izaten zituen inguruan. Hamazazpi urterekin hasi zen neska-lagunarekin (hark hamalau zituen) eta berarekin ezkondu zen, hogeita hamahiru urte zituela. Bitartean hiru urte egin zituen gerran, baina andreak itxaron egin zion.

#### **31. Emakumeak buru gainean teila ipini, etxetik irteteko (ATE-012/030)**

Antzina esaten zuten kontu bat: emakumea ezin zela etxetik irten gizonaren baimenik gabe. Orduan, emakumeak teila zati bat jartzen zuen buru gainean

atarira egurretara edo ur bila joateko, eta gizonak ezin ezer esan. Berak ez ei du ezagutu halakorik.

### **32. Biribilketa, Leon Bilbaok albokarekin jota (ATE-012/035)**

Albokarekin jotako doinua: biribilketa.

### **33. Arrantza, lizentziarekin eta mugatuta (ATE-012/041)**

Esparbelarekin eta sarearekin ibili izan da arrantzan. Gaur egun lizentzia behar da eta mugatuta dago, baina jendea ezkutuan ibiltzen da. Beraiei ortutik barazkiak lapurtzen dizkiete eta arrainik dagoen lekutik ezin hartu? Sasoika, astean bitan botatzen dituzte, biberetan hazitako arrankariak.

### **34. Oilagorretarako zaletasuna (ATE-012/042)**

Oilagorretarako zaletasuna izan du. Txakur onak izaten zituen. Garai bateko basoak desberdinak: pinu gutxiago eta harizti gehiago. Azeri gutxi ikusi izan du.

### **35. "Azeri zuriak" oilo-txaboletara (ATE-012/044)**

Garai batean basoetan oilo-txabolak egoten ziren. Bi azeri klase egoten zirela dio: azeri normalak eta "zuriak" (pertsanak). Azken horiek gaez txaboletara joan eta oiloak harrapatzen zituztela dio.

### **36. Gerran gaztelaniaz egin behar eta jakin ez (ATE-012/046)**

Garai batean Arabara joaten ziren morroi, gaztelania ikastera. Bera gerrara joan zenean, gaztelaniaz egin behar, baina batere jakin ez! Azpeitiarrekin ulertu ezinda.

### **37. Gerra sasoian Gorbeian lo egin behar elurrarekin (ATE-012/047)**

Gerra sasoian, elurra egonda ere, trintxeran lo egin behar. Gorbeiaiko puntan sarri lo egin behar izan zuen. Nola prestatzen zuten ingurua: fusilak ipini, gaintetik toldoa bota, txilarra... Garai bateko jendea gogorragoa zela dio, behintzat aurrera ateratzen zirenak. Berak zazpi hilabete ingururekin tifusa izan zuen, baina bizirik atera zen.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

*2026-04-10*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com